



EKOFEMINISMOA

ETA

ELIKADURA BURUJABETZA

- eskoletan -

ESKAINZA KATALOGOA



Labore
txingudi

MAIA
PERMACULTURE



AURREKARIAK ETA AURKEZPENAK

Dokumentu honen bidez, **elikadura burujabetza** eta **ikuspegi ekofeminista** eskoletara hurbiltzeko zenbait proposamen ezagutzera eman nahi dizkizuegu.

Izan ere, Labore Txingudi, kontsumo arduratsua sustatzeko elkarteak, Maïa Permaculture kooperatibak eta Ara!Gorputz, feminismoa ardatz duen kooperatibak, 2022. urtetik dihardugu zentzu honetan, elkarlanean.

Hiru eragileok Bidasoko badian kokatutako BDSkoop sarearen parte gara. Hau, Ekonomia Sozial Eraldatzailea eta lekuko garapena sustatzen duen elkartea da. Bertan, disziplina anitzetako profesionalak gaude mundu hobe bat eraikitzen.

Ikasleek **elikadura burujabetza**, **agroekologia**, **kontsumo arduratsua**, **feminismoa** eta **kooperatibagintza** zer den jakitea nahi baduzu, eta finean, **etorkizun bizigarri** eta **desiagarriak** non eta nola eraikitzen ari garen esperimentatzea nahi baduzu, segi irakurtzen.



PROGRAMAREN HELBURUAK

Elikadura burujabetza eta ekofeminismoa **gazteekin** lantzea

01

Agroekologia, bizipenen bidez, eskoletara hurbiltzea

02

Ekonomia feminista- eta **ekofeminismoaren** ikuspuntuak
barneratzea

03

Kapitalismotik haratago, **bestelako ekonomia ereduak**
ezagutzea ematea

04

Egungo eredu indibidualistaren aurrean, eraldaketak emateko,
sareen indarra eta ezinbestekotasuna agerian uztea

05

PROGRAMAREN HARTZAILEAK

Programaren hartzaileak hauek dira:

- DBHko ikasleak
- Lanbide heziketako ikasleak (oinarrizko eta erdi mailako graduak)
- Aurreko bi kasuetan, ikasle horien irakasleak eta eskolan lan egiten duten pertsonak





IKASTETXEAREKIN AURRE LANKETA

Saioak gauzatu aurretik, **ezinbestekoa da ikastetxearekin zenbait aurrelan egitea**. Horren helburua ikasleen egoera ezagutzea eta ikastetxearen inplikazioa aztertzea da.

Horretarako, zubi lanak egingo dituen irakasle bat edo bi izatea garrantzitsua da. Pertsona horien eginbeharrak hauek izango dira: dinamizatzaileekin behar diren bilerak egin saioen datak eta ordutegiak adosteko, logistika kontuekin lagundu eta saioetan bertan dinamizatzaileekin egon.

METODOLOGIA

Labore Txingudi, Maïa Permaculture eta Ara!Gorputz egitasmoen oinarri metodologietako bat, **BIZIPENETATIK IKASTEA DA**, beraz, teoriaz gain, praktikak, dinamikak eta kasu honetan, txangoak uztartzen ditugu.

Nahiz eta gure programa moldakorra eta malgua izan, hona hemen gure proposamena:

DBH 1-2

Agroekologia eta
ekofeminismoari
sarrera
saioa

DBH 3-4

Agroekologia eta
ekofeminismoa
gorpuzten
saioa



DBH 3-4
+ BATXILERGOA

Kooperatibismo
eta ekintzailatza
feministaren
inguruko saioak

SAIOEN DESKRIBAPENA ETA BEHARRAK

AGROEKOLOGIA ETA EKO-FEMINISMOARI SARRERA (OBH 1-2)

Saioaren helburua agroekologia eta ekofeminismoari sarrera bat egitea da.

Saio hau txango baten bidez egingo dugu. Lehen partean, Labore Txingudiren dendara bisita egingo dugu eta ostean, dinamika batzuen bidez teoria lantzeko parada izango dugu. Saioaren bigarren zatia Irungo Palmera-Montero espazioan egin ohi dugu, baina bestelako espaziotan ere egin daiteke.

Saio honek goiz oso bat irauten du. Aukera egongo balitz, txangoa bizikletan egin liteke. Bestela, autobus publikoan mugitu ohi gara.





AGROEKOLOGIA ETA EKO FEMINISMOA GORPUZTEN (DBH 3-4)

Saioaren helburua agroekologia eta ekofeminismoa gorpuztea da.

Saio hau txango baten bidez egingo dugu. Lehen partean, baratzera bisita egingo dugu, Hondarribiko Botika agroaldeako Sorburu baratzakomunitariora (Sorburu, BDSKoop sarean baitan dago ere). Bigarren partean, Hondarribiko azoka bisitatuko dugu. Bertan, ikasleek tartea izango dute beren zalantza eta bizipenak elkarbanatzeko.

Saio honek goiz oso bat irauten du. Aukera egongo balitz, txangoa bizikletan egin liteke. Bestela, autobus publikoan mugitu ohi gara.

SAIO GEHIGARRIAK (DBH 3-4 + BATXILERGOA)

Ikastetxean gai hauen inguruan sakontzeko interesa egongo balitz, saio teoriko-praktiko gehigarri hauek egitea proposatzen dugu:

- **Kooperatibismoa eta ESEa:** Saio honen bidez, kooperatibismoaren- eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen (ESE) oinarriak landuko ditugu. Kapitalismo indibidualistatik at dauden ekonomia ereduak mahai-gaineratuko ditugu.
- **Ekintzailetza feminista:** Saio honen bidez, sistemak proposatzen duen ekintzaile bakarti eta isolatuaren aurrean, bestelako eredu batzuk badaudela aztertuko dugu.





INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Gure programa zuen ikastetxean txertatzeko interesa baduzue, idatzi helbide honetara eta aurrekontua zein xehetasun guztiak definituko ditugu:

info@aragorputz.eus

Labore Txingudi elkarteak
www.laboretxingudi.eus

Maia Permaculture kooperatibak
www.maiapermaculture.com

Ara!Gorputz kooperatibak
www.aragorputz.eus

BDS-Koop sareak-elkarteak
www.bdskoop.eus



GUTAZ GEHIAGO JAKIN NAHI BADUZU





ERALDAKETA KOMUNITATEAN HASTEN DA.

*Proiektu hau BDSKoopeko, Labore Txingudi, Ara!Gorputz eta
Maia Permaculture-ren arteko elkarlanaren emaitza da.
Eusko Jaurlaritzako Agenda 2030 Bonoak programaren
laguntzarekin gauzatu dugu.*

Agenda 2030
Euskadiren konpromisoa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

